



3 BESTE SEKTORIAL LOTURAK HIRIGINTZA PLANEAMENDURAKO.

3.1 ARRISKU FAKTOREAK

Vitoria-Gasteizko Udalak Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari informazioa eskatu zien Vitoria-Gasteizko udalerrriaren babes zibileko arrisku analisei buruz, bidalitako txostenaren zenbakia 64.976/2008 izan zen 2008.urteko martxoak 27 datarekin.

Hamar urte igaro arren eta txosten berri bat eskatu beharra aldaketa posibleak ikusteko, laburpen bat agertzen da txosten honi buruz

Arriskuak aztertzen dira, inbentario bat egiten da eta arrisku mapa bat, antolamendu lurraldeari buruz dagokion sailei bidaliz, EAEko Babes Zibileko Planean kontutan hartzeko, idazketan, prozesuan eta onarpenean.

Bidalitako informazioa Babes Zibileko Plana kontrastatu, osatu edo eguneratzeko balio du, Vitoria-Gasteizko Udalak daukan Babes Zibileko Planarekin eta hurrengo arriskuen analisia ezartzen ditu HAPOaren berrikusketarako:

- o **Uholdeekin lotutako arriskuak:** EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LPSaren erretiratze hidraulikoa errespetatzeko beharra eta Ebroko arro hidrologikoaren planeko araudiak esandakoa azpimarratzen du.


Vitoria-Gasteizko prezipitazio maximoak 150 eta 175 mm/egun artean daude, 500 urteko errepikatze denborarako, drainatze obra guztietan kontutan izan behar dira.

- o **Arrisku sismikoa:** udalerrriak larrialdiko plan sismiko bat egiteaz salbuetsita dago, eraikinak suntsitzeko ahalmena duen lurrikararen agerpena zaila da. Hala ere, eraikuntza berrietan kontutan hartu behar da sismorresistentearen eraikuntza araua.
- o **Arrisku teknologikoak:** bi multzotan taldekatzen dira:
- o Zama arriskutsuen garraioengatik jasandako arriskua: 2005.urtean kaleratutako ikerketa "EAEko salgai arriskutsuen garraio edo zama lanak", Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen du. Fluxu horietatik aurrera kalkulatu da biztanleri eta ingurune naturalentzako suposatzen duen arriskua TRANSIT ereduan.

Vitoria-Gasteizko bide azpiegiturak, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera doaz. Txostenean, N-1 errepideak, 380.000 eta 2.190.000tona/urte zama arriskutsuak jasaten dituela dino arrisku ertaina eta altuarekin tartearen arabera, eta N-102 120.000 eta 380.000 tona/urtean.


100.000 eta 130.000 tona/urte bitarteko zama arriskutsuen fluxua darama trenbideak udalerritik igarotzerakoan, arriskua ertainekoa kontsideratuta dago.

Txostenean aipatutako *Zama arriskutsuen garrario arrisku mapak*, azpiegituraren alde bietan 600 metroko lerroa definitzen da, istripu bat egotekotan baldintza kaltegarriengatik parte hartzeko zonaldea izango litzateke, 2001eko Material arriskutsuen esku-hartze Fitxen gomendioen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Barne Sailak kaleratuta.



Iturria: *Merkantzia arriskutsuen garraioatiko arrisku mapa, EJ-ren Larrialdi Zuzendaritza (2008)*

- o **SEVESO Zuzentarauak II:** Seveso Zuzentarauak esparru juridikoak sartu da 1254/99 eta 119/2005 Errege dekretuen bidez. Norma honi dagokionez, prebentzio neurriak hobetu nahi dituenak, adibidez arrisku bat izatekotan erantzun gaitasuna, Vitoria-Gasteizen ez dira jarduera industrialei lotutako jarduerak antzeman.
- o **Baso –sutearen arriskuak:** Landaredi unitate bakoitzaren arriskua aztertzeko dagokion eredia egokitu zaio, “Euskal Herriko Baso Erregai Eredutik” DAE 1999 aterata. Azterketa ereduaren emaitza: arrisku baxua, hiri finkapen eremuak, larreak eta atlantiar laborantza; arrisku ertaineko zonaldeetarako erkameztiak eta artadiak; eta arrisku altuko zonaldeetarako haritzak, pagadiak eta urkiak.



Iturria: *Basoko su arriskuen mapa, EJ-ren Larrialdiei zuzendaritzarena* (2008)

3.2 3/1998 LEGEA, EUSKAL HERRIKO INGURUGIROA BABESTEKO LEGE OROKORRA

Euskal Herriko ingurumena babesteko esparru arautzailea, 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko lege orokorra (EHAO, 59.zk, martxoaren 27koa) ezartzen du. Arau juridiko honetan planteatzen diren helburuak hurrengoak dira:

- Etorkizuneko belaunaldiek beren premiak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo premiak betetzeko garapen jasangarria bermatzea.*
- b) Biodibertsitatea mantentzea, bere osagaiak ingurugiro-baliabideak erabilia sortzen diren irabaziak era zuzen eta bidezkoan banatzeko era jasangarrian erabiltzen direla zainduz.*
- c) Edozein ingurunetan bizi direla ere, euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzea.*
- d) Ingurugiroa babestea, kalteak prebenitzea eta kaltetu den lekuan leheneratzea.*
- e) Ingurugiroko eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz eta zuzentzako neurriak ezarriz.*
- f) Ingurugiro-ezagutzako arlo guztietan ikerketa sustatzea.*
- g) Hezkuntzako maila guztietan ingurugiro-hezkuntza bultzatzea eta ingurugiroa babesteko herritarrek kontzientziatzea.*



- h) *Ingurugiro-kontsiderazioak era eraginkorreetan hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babeste-lanean sartuta, hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea.*
- i) *Landa-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea nekazaritzaren eta ingurugiroaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.*

Europar Batasuneko erakundetik eratorritako arauketarekin bat etorritik, azpimarragarria da informazioa eskuratzeko eskubidea (16.artikulua), administrazio publikoan eskuragarri dagoena ingurumen arloan, edozein pertsona fisiko edo juridiko, nahiz eta aipatutako pertsona edo entitatea interes zehatzik ez izan (legitimazio publikoa), ingurumen baliabide ezberdinen babesarako arauak ditu (Biodibertsitatea, ura bere baimen egokien erregimenarekin, Hezeguneak, Lurzoruaren Babesa, airearena, zarata eta bibrazioak).

Ingurumenaren gain eragina daukaten jardueren antolamenduak (38 eta hurrengo artikulua) "kutsaduraren kontrol integratua" eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioan eragiten dute, tipologia, estatuaren erregulazioaren aurretik ere, 2003ko Dekretuan garatutako ondorengo programak eta Eusko Jurlaritzako egungo 212 zenbakiko dekretuan, 2012.urteko urriaren 16koa (LPV 2012\412). Egiak, 1.998.urteetik arau juridikoa eman zen urtea, ingurumen araudiaren garapena bai Europar Zuzendaritza mailara eta bai estatu xedapenen arabera emaitzak oso aldakorak izan dira, hala ere, arau juridiko honi ez zaio garrantzirik eman eta erregulazio autonomiko esparruaren barruan kalifikatu dugu.

Beste alde batetik, aurkitzen garen udalerriko eremuan, azpimarratu behar dugu, SAILKATUTAKO JARDUEREN erregulazioa (3/1998 Legearen, 55 artikulua eta hurrengoak) eta antzinako RAMINP-en ordezkua 1961.urtean. Guri dagokionez, "jarduera lizentziak" bezala ezagunak direnak, beharrezkoak dira testu legalean sailkatuak daudenak. HONDAKINAK, beste atal azpimarragarri bat osatzen dute, (67 artikulua eta hurrengoak) erradiaktibak izan ezik. Hiri hondakin solidoetan (72.artikulua) azpimarratzen da eskualdeko hautatutako bilketa sistema bultzatuz. Eko-etiketak eta ingurumen hezkuntza (96.artikuluak) ingurumen auditoretzak eta ingurumen kudeaketa eta tresnetaz arduratzen dira.

INGURUMEN DISZIPLINAREN atalean, administrazio erantzukizuna ezartzen da akzioen arau legalak ez betetzeagatik, Konpromisoa hartzen duen orden penal edo zibilaren erantzukizunak osatuko ditu. Aurreikuspena azpimarratuz (102.artikuluak) "inposatutako zigorrak kalterik izan gabe, urratzaileak behartuta egongo dira aurreko egoera berreskuratzeko eta odezkatzeko propietateak zaharberritu eta ordezkatzeko".Zigorrak inposatzea Udala Administrazioari dagokio, euren gaitasunaren ingurukoak direnean(115.artikuluak).

3.3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NATURA KONTSERBATZEKO LEGEA

1/2014 Legegintzako Dekretua, Apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duena,(EHAA 92 zenb., 2014ko maiatzak 19) ziurtatzeko helburua dauka:



- a) *Herritarrek natura-baliabideak modu egokian erabiltzea: hots, espezieen eta ekosistemen aprobetxamendua jasangarria izatea, eta haiek leheneratzea eta hobetzea bermatzea.*
- b) *Natura-ecosistemen eta paisaiaren aniztasuna eta apartekotasuna zaintzea, eta interes geologikoa duten inguruak babestea.*
- c) *Funtsezko prozesu ekologikoak eta basafauna eta basafiorako espezieen habitatak mantentzea, dibertsitate genetikoa bermatu ahal izateko.*
- d) *Natura-ondareak berez ekoizteko duen ahalmena bere horretan mantentzea.*

Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak arduratuko dira eskumena duten alorretan dauden natura-baliabideen kudeaketa honako printzipio hauek kontuan izanik eginarazteaz, edozein delarik ere horien titulartasuna eta lege-araubidea:

- a) Natura baliabideak modu egokian kudeatzea, gaur egungo belaunaldientzat ekonomian, gizartean eta ingurunean ahalik eta etekinik handienak ekoizteko. Betiere, hurrengo belaunaldien beharrak eta asmoak bete ahal izateko adina egoteko moduan.
- b) Lurra kontserbatu eta babestuz erabiltzea, emankortasuna gutxitu eta kaltetu gabe.
- c) Horretarako baliagarri diren lurren nekazaritzako erabilera bermatzea. Ahalmen biologikoa eta ekoizteko ahalmena mantentzeko moduko nekazaritza-teknikak erabiliko dira (nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak eta basogintzakoak), inguruko ekosistemekiko begirunez eta jabetzaren funtzio soziala aintzat hartuz.
- d) Ur-baliabideak isurketetatik babestu egin beharko dira. Berez arazteko duten ahalmena kontserbatu eta hobetu behar da, eta fauna eta flora babestu.
- e) Landaredia kontserbatu egin behar da: basoak, landare-multzoak, palaxuak eta ibaiertzetako flora batik bat. Mendiko baso-aprobetxamendua modu antolatuan egin beharko da, beharizan sozioekonomikoen arabera, eta ekologian gutxieneko inpaktua sor dezakeen eremuetan bultzatu.

Landaredi barik utzi diren eraikuntza gabeko lursailetan albait lasterren aldatu beharko dira landareak, betiere eremuari dagozkion ezaugarriak aintzat hartuta.

- f) Basafauna eta basafiora arretaz zainduko dira, natura-ondarearen zatitza. Espezie mehatxatuak kontserbatzen eta berreskuratzen ahalegin berariazkoak egin beharko dira.
- g) Itsas baliabideak denon aberasgarri dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzuan egon beharko dute. Hortaz, baliabideon erabilera, ekonomia-ustiaketa zentzuzko eta eraginkorraz, etekinik handiena lortzera bideratuko da. Ustiaketa, bada, espezieak kontserbatzea eta herriaren ongizatearen hazkundera bat etortzeko moduan egin beharko da.
- h) Azpiegitura-obrek, eta eraikuntzek oro har, horien inpaktua onartzeko modukoa bada, natura eta paisaiari egokituak behar dute izan.
- i) Natura aztertzea bultzatuko da eskola-umeengan, baita hezkuntza- eta zientzia-proiektuak gauzatzea ere, natura bera hobeto ezagutu eta kontserbatzeko.



j) Ingurune naturalaz kultura eta aisialdirako gune bezala baliatzea eta gozatzea bermatuko da.

k) Lege hau ezartzean gertatutako irabazi-murrizketen kalte-ordainak bermatuko dira.

Lege honen printzipioak eta helburuak aurrera eraman ahal izateko, honako berariazko bitarteko hauek ditugu 3. artikuluan aurreikusten diren bezala:

a) Natura Baliabideen Antolamendu Plana.

b) Natura-gune babestuen izendapena.

c) Espezie Mehatxuen zerrenda.

Aipatutakoen artean, NATURA ONDAREAREN BALIABIDEEN ANTOLAMENDU PLANA, nabarmentzen da, eta hurrengo zehaztapenak edukiko ditu:

a) Antolatu behar den lurralde-eremuaren mugaketa eta bertako ezaugarri fisiko eta biologikoen deskripzioa eta interpretazioa.

b) Lurralde-eremu horretako natura-baliabideak, ekosistemak eta paisaiak zein egoeratan kontserbatu diren. Egoera horren diagnostikoa egin eta etorkizunerako aurreikusitakoa zehaztu beharko da.

c) Babestu beharrekoak diren gune eta espezieen kontserbazioaren arabera, eta lurraldeko zatiketaren arabera, erabilera eta jardueretarako ezarri behar diren muga orokor eta berariazkoak.

d) Lege honetan ezarritako zein babes-araubide aplikatu behar den, hala badagokio. Kasuan kasuko lurralde-mugak zehaztu behar dira.

e) Politika sektorialak bideratu eta jarduera ekonomiko eta sozial publiko nahiz pribatuak antolatzeke erreferentzia-irizpideak zein diren.

f) Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araubideari lotuta dauden jarduerak, obrak edota instalazio publiko nahiz pribatuak zein diren.

g) Antolamendu-plana ezartzeak ematen duen emaitzaren jarraipena egiteko plana.

Testu bateginaren 6. Artikuluari dagokionez, Natura-baliabideen antolamendu-planak nahitaezkoak eta bete beharrekoak izango dira Euskal Herriko Natura kontserbatzearen lege honetan araututa dagoen bezala eta beren xedapenek lurralde-antolamendurako zein antolamendu fisikorako diren beste edozein bitarteko mugatzen dute. Era berean, azken horien xedapenek ezin izango dituzte lege honetakoak aldatu. Dauden lurralde-antolamendurako edota antolamendu fisikorako bitartekoak, natura-baliabideen antolamendu-planekin bat ez badatoz, horietara egokitu beharko dira behin betiko onartzen direnetik urtebete baino lehenago.

Egokitzapena bete bitartean, plan horietako xedapenak ezarriko dira, eta, betiere, dauden lurralde-antolamendurako edota antolamendu fisikorako bitartekoen gainetik egongo dira.

Beste alde batetik, natura-gune babestuek honako maila hauetako bat izango dute:



- a) Natura-parkea.
- b) Biotopo babestua.
- c) Zuhaitz apartekoa.
- d) Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantziko lekuak -BGL-, kontserbazio bereziko eremuak -KBE- eta hegaztientzako babes bereziko eremuak -HBBE-), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere.

Natura-parkea izendatzeak eremu horretako Natura Baliabideen Antolamendu Plana aldeztu aurretik eratzeko eta onartzeko eskatzen du. (20.artikulua).

Arau legal hau, patronatu eta kontserbadoreen zuzendarien edo zuzendari kontserbadoreen Parke naturalen antolakuntza-egituraz gain (34.artikulua), finantzazio eta garapen ekonomikoa ezartzen da (35.artikulua), ohiko jarduerentzako, tokiko biztanleriarentzako, landa etxebizitzaren birgaitzerako, kultur ekimenen sustapena, ... etb.

Beste alde batetik, ondorengo ataletan fauna eta floraren babes arauak ezartzen dira; mehatxatutako espeziak, flora eta fauna larreak eta ur kontinentalen arrantza, dagokion hauste eta zigor erregimenak itxiz.

Aurreko ataletan aipatu dugun bezala, **Vitoria-Gasteizko udalerrian interes naturalistiko altuko espazio kopuru handiak existitzen dira**. Besteak beste, NATURA 2000 SAREaren barruan lau toki daude, guztiak kudeaketa Planean azalduak, Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) bezala eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatuak izan direnak, Salburuako hezegunean gertatu den bezala. Zadorra ibaian, Arabako Lautadan haritzak eta Gasteizko Mendi Garaiak. Gasteizko Mendiak Parke Natural bezala izendatu nahi izan dira. Aurreko guztiei dagokienez, aldeztu aurretik adierazitakoari helearazten gara.

3.4 AUTONOMIA ETA ESTATUKO UR LEGEA

Uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Urei buruzko Legearen testua (EAO 2001.urteko uztailak 24, 176 zk [26791 orrialdea]; EAO 2001.urteko azaroak 30, 287.zk.), bereziki aldatua, besteak beste 62/2003 Legeaz, abenduaren 30ekoa (EAO 313zk. Abenduaren 31kkoa) eta era berean, Auzitegi Konstituzionalaren epaiketa ugariengatik hunkitua (149/2011; 149/2012; 19/2013; 36/2013, 104/2013 y 196/2015), bere ideien garrantzia aurkezten dute, **jabari publikoa osatzen duten ondasunak definitzen ditu** (ur kontinentalak, gainazalekoak eta lurrazpikoak, ibilguen korrante naturalak, lakuak, aintzirak eta urmaelak, akuiferoak eta gatzgabetuko urak); ur publikoaren administrazioarekiko printzipioak ezartzen ditu (14.artikulua) autonomia erkidegora hedatu daiteke (18.artikulua) **jabari korronteei dagokionez lurraldean dauden hidrografia korronteei**; artoaren organismoen funtzioak eta konfigurazioa eta hidrologia planifikazioa finkatzen du (40.artikulua).



Modu honetan, “Jabari Publiko Hidraulikoaren” erabilpenari **dagokion erregimen juridiko, zortasun legalak** ezartzen ditu (akueduktu-zortasunak bezala ezagunak direnak barne). Erabilera arrunt eta jabedunen arteko bereizketa eta erregulazioa, propioa, orokorrean jabari publikoaren xedapenen guztiena; aurreikusten baimenen eta kontzesioen erregulazioak bere erabilpenerako eta okupaziorako eman daitezkeenak (59.artikulua eta hurrengoak). Guzti hauez gain jabari publiko hidraulikoaren babesaren helburuak gehitu behar zaio (92 artikulua eta hurrengoak), azaleko masa egoera eta kutsadura murrizteko aurreikusitako ingurumen-helburuei arreta jarritz, testu juridiko honetan espresuki zehaztutako beste guztiez gain. Isurketak (100 artikulua eta hurrengoak), Ur legeko Testu Bateginan osatzen dira, hezeguneei buruzko beste xedapenak ere ulertzen ditu (111 artikulua): erregimen ekonomiko finantzarioa jabari publiko hidraulikoaren erabilpenean, erabilpen kanoia, arau-hausteak, zigorrak, eta lan hidraulikoak.

Egungo **Ebroko Plan Hidrologikoa 2015-2021** urteetarako berrikusia, urtarrilak 8, 1/2016 Errege Dekretuan zehar (EAO 16zk. 2016ko urtarrilak 19) **arro hidrografikoaren eranskinean Zadorra barne, jarduketa neurriak ezartzen dira, bere ibilgua ziurtatzeko garantia baimena, eta ur-masen eta itsasertzen babesa.**

Bere aldetik, Eusko Legebiltzarrak EAE-ko **Uraren 1/2006 Legea ekainaren 23koa onartu eta aldarrikatu** zuen (EHAA 137 zk, uztailak 19koa). Uraren Euskal Agentzia (URA) enpresa publikoa baina eskubide pribatuekin eratu zen. Lege arauak esaten duen funtzioen kudeatzailea, eta bestelako xedapenen askoren artean administrazio jarduketaren printzipio orokorrak tratamendua eta uraren planifikazio osoa ezarri zituen. 3 artikulua aipatzen duen bezala hurrengoak ere ezarri ziren: lurralde antolamenduaren, kontserbazioaren, babesaren, ingurune birgaitzearen, solidaritatea, erantzunkizuna eta kudeaketatik sortutako kosteen bateragarritasuna kudeaketarekin.

Euskadi arro hidrografikoak lege honetan modu berean mugatu ziren (4.artikulua), banaketa ondorengoa izanik:

- a) **Barneko arro hidrografikoak:** Asua, Barbadun, Butron, Estepona, Galindo, Gobela, Oka, Lea, Artibai, Deba, Oiartzun eta Urola.
- b) **Erkidego arteko arro hidrografikoak:** Karrantza, Aguera, Ibaizabal, Oria, Urumea, Bidasoa, Ebro, Puron, Omezillo, Baia, **Zadorra**, Arakil, Inglares eta Ega.

URAK ezarritako funtzioen artean, 7. artikulua hurrengoak ezartzen ditu:

*“k) **Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario zatiko plan eta plan bereziei buruzko txosten lotesleak egitea.** Txosten horiek udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko harremana izango dute gai bakarra, arloari zein inguruneari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da.*

*l) **Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, zatiko plan eta plan bereziei buruzko txosten lotesleak egitea.** Txosten horiek Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango dute gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste*



legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da.”

16 eta 17. Artikuluetan planteatzen diren **ingurumen helburuak hurrengoak** dira:

“Lur azaleko urentzako ingurumen-balioak

Jarduera publikoen helburuak lur azaleko urak babesteko hauek izango dira:

- a) Lur azaleko ur-masa guztien egoeraren andeatzeari aurrera hartzea.*
- b) Egoera onean dagoen uraren behar besteko horniketa bermatzea, ur horretaz modu iraunkorrean baliatuta; horretarako, baliabide hidrikoak epe luzearako babesa hartuko da oinarri.*
- c) Lur azaleko ur-masa guztiak babestu, hobetu eta beren onera ekartzea, ur artifizial eta asko eraldatutako kasuan aplikatu beharrekoa aplikatuta betiere, horrela 2015eko abenduaren 31 baino lehen egoera ekologiko ona lortzeko.*
- d) Ur-masa artifizial eta asko eraldatutako guztiak babestu eta hobetzea, lur azaleko ur horiek 2015eko abenduaren 31 baino lehen gaitasun ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dadin.*
- e) Lehentasunezko gaiak eragindako kutsadura progresiboki murriztea, eta lehentasunezko gai arriskutsuen isurtze, igortze edo galtzeak etetea edo mailaz maila desagerraraztea.*
- f) Lurraz edo baliabide naturalez baliatzerakoan, ur-masak eta uretako ekosistemak errespetatzen dituzten jokoerak bultzatzea.*
- g) Uholdeen eta lehorteen ondorio kaltegarriak arintzea.*
- h) Euskadiko ingurunea babesteko araudian ezarritako helburuak betetzea.*

Lur azpiko urak babesterakoan, helburu hauek izango ditu:

Jarduera publikoak, lur azpiko urak babesterakoan, helburu hauek izango ditu:

- a) Lur azpiko uretara gai kutsatzaileak iristea saihestea edo kopurua murriztea, eta lur azpiko ur-masa guztien egoeraren andeatzea saihestea.*
- b) Lur azpiko ur-masa guztiak babestu, hobetu eta beren onera ekartzea, eta lur azpitik ateratzen den uraren eta sartzen denaren artean oreka bermatzea, 2015eko abenduaren 31rako lur azpiko uren egoera ona izatea lortzeko.*
- c) Lurraz edo baliabide naturalez baliatzerakoan, ur-masak eta uretako ekosistemak errespetatzen dituzten jokoerak bultzatzea.*
- d) Edozein gai kutsatzaileraren kontzentrazioak gizakiaren jardueraren eraginez gora egiteko joera nabarmen eta etengabea duela ikusten baldin bada, joera hori alderantzikatzea, lur azpiko uren kutsadura progresiboki gutxiagotzeko.*

Hidrologi planifikazioa (22.artikulua) 1/2006 Legean aurreikusten da, Euskadiko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikotik hasita, obra hidraulikoen definizioa sartuz, Ekonomiko-Fintzantzario Erregimena, “uraren kanona” (42.artikulua), Eusko Jurlaritzak azaroaren 4an



181/2008 Dekretuaz garatua (EHAA 221.zk. 2008.urteko azaroaren 18koa), eta diziplina hidraulikoaren arauak aurreikusten arau-haustea eta zigorrak.

3.5 EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZA POLITIKOAREN LEGEA

17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa (EHAA 250 zk, abenduak 31) eta 9/2012, 2/2015 eta 8/2015 legeetan egin diren aldaketak, (Emakume Nekazarien Estatutua) helburu bezala daukate: *“lege honen xedea da, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika definitzeko balioko duten printzipio bide-erakusleak ezartzea, eta bestetik, erreferentziako erakunde-esparrua argitzea eragile sektorialentzat eta herritarrentzat”* (1. artikulua) azpimarratuz ***“eremu objektiboa nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreen antolaketa orokorra da (produktzio-,eraldaketa-, ontziratze- eta merkaturatze-faseak barne hartura), bai eta, oro har, nekazaritza-ingurunearen multifuntzionaltasunari lotutako jardueren antolaketa ere.”***(Bigarren transformazioa eta merkaturatzea ere barne hartzen ditu basoko sektorean, beti ere ustiapena edo nekazaritza industriarekin egiten denean).

Arau legal honen helburuak eta xedeak, 5 eta 6. Artikuluetan daude:

“5. Artikulua Xedeak”

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika hainbat xede lortzera bideratuko da. Hona hemen xede horiek:

a) Nekazaritza-egiturak hobetzea, nekazariak diru-sarrerara duinak eskura ditzaten eta kontsumitzaileek bidezko prezioak izan ditzaten.

b) Nekazaritza-jardueraren eta bere izaera multifuntzionalaren aitortpen soziala lortzea; ez baita elikagai-ekoizle bakarrik, eta gizartearentzako beste onura batzuk ere bai baitakartza: esaterako, ingurumena babestu eta birsortzea, paisaia eta biodibertsitatea babestea, lurraldea modu orekatuan kudeatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ingurunea eta kultur ondarea gordetzea.

c) Nekazaritzako eta elikagaigintzako ustiategi edo enpresa bideragarriak eta iraunkorrak eratzea eta sustatzea, hain justu, proiektuak eta produktuak teknikoki gauzagarri, ekonomikoki errentagarri, ingurumenaren aldetik onargarri eta sozialki onegarriak diren postulatuen arabera egiteko.

d) Nekazaritza- eta elikagaigintza-produktu seguru eta kalitatezkoak dibertsifikatu, sustatu eta merkaturatzea.

e) Nekazaritza-lurra babestea, ez balio agronomikoaqatik bakarrik, baita biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta berme delako eta desertifikazio- eta higadura-arriskua murrizten edo eragozten duelako ere.

f) Nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean informazioaren teknologia berriak, ikerketa, garapena, berrikuntza eta nekazaritzako eta elikagaigintzako prestakuntza teknologikoa bultzatzea eta ezartzea.



g) Nekazaritza-jardueraren gizarte- eta prebentzio-funtzioa defendatzea (enplegu-sortzaile den aldetik), eta, batez ere, bere giza kapital ahulena: emakumeak, nekazari gazteak, soldatapeko langileak eta sasoikako langileak.

h) Nekazaritza-eta elikagaigintza-arloko prestakuntza, asoziazionismoa eta profesionaltasuna hobetzea, eta, oro har, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektoreak egituratzen laguntzen duten praktikak hobetzea; hartara, areagotu egingo da elkarteek solaskide izateko, negoziatzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna, bai eta beren interesak ordezkatzeko gaitasuna ere.

6. Artikulua Helburuak

Lege honek ondorengo helburuak ditu:

a) Nekazaritza-ustiategien jarraipena ziurtatzea, landa-ingurunearen garapen ekonomikorako oinarritzko bitarteko baitira, bai eta familia-nekazaritzatik ahalik eta jende gehien bizitzeko bitarteko ere.

b) Gazteei nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean eta elkarte zein taldeetan sar daitezen bultzatzea.

c) Emakumeek nekazaritzan eta elikagaigintzan egiten dute lana aintzatestearen alde egitea, sektorean jarrai dezaten laguntzea, eta beren bidea baldintza berdinetan gara dezaten laguntzea; halaber, elkarte eta taldeetan sar daitezen bidea erraztea.

d) Nekazariak errenta duina jaso dezaten bultzatzea, ekoizpen- eta lantze-gastuak berdintzeko modukoa, subsidioen edo kanpoko laguntzen mende egon gabe.

e) Ustiategien dimentsionamendu estrukturala sustatzea eta, kasuaren arabera, babestea, bideragarritasun ekonomikoari laguntzeko

f) Nekazaritza-lurra babestea, batez ere gunerik kaltetuenetan dauden eta hirigintza-presioaren mende dauden lurra.

g) Laborantza-, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpena hobetzea, produkzio-bideak kontrolatuz eta optimizatuz, eta lortutako ekoizpenen balio erantsia sustatuz.

h) Merkatuak saritzen ez dituen arren, nekazaritzaren izaera multifuntzionalaren barruan dauden jarduerak babestea; hain zuzen, lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak gordetzea eta nekazaritza-gizarte eta -kulturari eustea.

i) Nekazaritza- eta elikagaigintza-industria garatzea eta prestigiatzea, ekoizpen-sektorea balio-katean txertatzeko oinarritzko urratsa delako, eta nekazaritza-ingurunearen garapen ekonomikoaren oinarritzko bitarteko delako.

j) Merkatuetan kalitate-erreferentzia izango diren eta kontsumitzaileen osasun eta ongizaterako berme osoa emango duten produktuak ekoizten direla bermatzea, eta euskal elikagaiei balio erantsia dakarten merkatuetan sartzeko bide ematea.

k) Nekazaritzan eta elikagaigintzan ikerketa eta berrikuntza teknologikoa areagotzea, eta aurrerapen zientifikoak azkar eta modu eraginkorrean zabal daitezen laguntzea, bai eta



teknologia berrien erabilera sustatzea eta nekazaritza-sektorea informazio-gizartean txerta dadin bultzatzea ere.

l) Nekazaritza- eta elikagaigintza-politika egin eta ezarri aurretik eragile sozial eta ekonomikoei kontsultatuko zaiela bermatzea, eta solaskide izateko eta adostasunera heltzeko bitartekoak indartzea, jardun-proposamenak nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorearen beharretara egokitzen lagunduko dute eta.

m) Ezagutzera ematea nekazaritzaren izaera multifuntzionala, eta nekazaritza- eta elikagaigintza-politikaren garapenean izandako jarduera nagusiak eta lortutako helburu nagusiak.

17/2008 Legetik hainbat agindu egiten dira Administrazio Publiko ezberdinei, besteak beste, Vitoria-Gasteizko Udalari. 8.artikulua dio: baliabideak lehentasunezko programetara edo ekintzetara bideratzen dira, esate baterako, **ustiapen profesionaleko titularrak ezartzea eta, batez ere, emakume eta gazteentzako laguntza bereziarekin; merkatuko eskakizunei erantzuten dieten produkzio-orientazioen garapena; alternatiba ekonomikoak sustatzea eta nekazaritza jardueraren dibertsifikazioa,**

"Udaleko Jarduera baimenik gabe" garatzen diren jarduerari dagokienez (10.artikulua), prozedimendu malguago bat ikusten da beraien behin behineko biziraupena mantenduz aurreikusitako supozizioetan. Administrazio publikoak nekazaritza lurzorua gain eragina izango dute, **aurreikusitako tresnen sustapenean euskal landa guneko antolamendurako** (nekazaritza lurzorua sorrera; borondatezko lagapenen sustapena; nekazaritza lurzoruen trukaketaren sustapena; lursailen sustapena...) eta bere jabetasuneko lurraldeei nekazaritzarako erabilpena emateko legean aurreikusten den bezala (18.artikulua).

Modu honetan, 17/2008 Legeak (112 artikulua eta xedapen gehigarriak, amaierakoak eta iragankorrak) "nekazaritza ekoizpenaren" erregulazioari buruz hitz egiten du, produkzio metodoekin, praktika onekin, identifikazioarekin, elikadura segurtasunarekin eta trazabilitatearekin, energia berriztagarriekin eta "informazio sozietatearen" barruari erreferentzia eginez (27.artikulua). Nekazaritza eta abeltzaintza produkzioa bere espazio propioa daukate, azken kasuan identifikazio, mugimendu eta animalien ongizateari. Elikadura eta animalien osasuna, animalien arrazaz jarraituak daude. Baso-ekoizpenaren parametro normatiboen zehaztapenak ere aurreikusten dira, besteak beste, basoen ibilgailuen inbentarioak mantenduz.

IV tituluaren informazio guztia agertzen da "aldaketa eta nekazaritza eta elikagaien salmentari buruz", kalitate kontrolari eta elikagai segurtasunari buruzko gauza guztiak azpimarratuz, produktuen arau aldaketak, bere sustapena eta salmenta etb..., tokiko merkatu eta ohiko azoken aurreikuspernera zuzentzen gaituena.

Modu berean, "ikerketan, garapen teknologikoan, innovazioan eta nekazaritza eta elikagai formazioa" azpimarratzen da (V tituluak), ondoren funtzio soziala eta prebentiboa (VI tituluak), nekazari gazteen apustua nekazaritzaren alde agerian geratzen da, nekazari seguruak eta garantzia fondoak, hondoratutako zonaldeen deklarazioak... eta "ordezkaritza eta elkarte antolakuntza" (VII eta VIII Tituluak). Nekazaritza eta elikagai sektoreen administrazio parte hartzea IX tituluaren agertzen da, sustapen neurrien aurreikuspenarekin, laguntza politika,



lizentzia eta baimen erremgimenekin batera, azkenik “ikuskapena eta arau-hausteen eta zigorren” erregimenarekin osatuz (X Titulua).

Azkenik, aipatzekoa da, Lege honen helburu sektorialak betetzearren, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak, Nekazaritza Arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloa (AAEP) eranskitzen du. Protokolo honek ,nekazaritzarako lurzoruan lurraldearen garapenerako proposamenek izan daitezkeen inpaktuen ebaluaketa erreala eta objektiboa egitea ahalbideratzen du. Afekzioaren ebaluaketa egiteko kontuan hartu beharrekoak honako hauek dira:

- Lurzoruaren antolamendurako kategorien gaineko eragina, Balio Estrategiko Altua duten lurzoruen eragindako azalerak neurtuz, hala nola erabilgarritasun publikoko mendiak eta babes mendiak.
- Eragindako ustiapenen ekonomi bideragarritasunaren gaineko eragina
- Ustiapenekin lotura daukaten eraikuntza eta azpiegituren gaineko eragina

Ondorioak aztertu ondoren, dagozkien neurri zuzentzaileak eta orekatuak proposatuko dira , hauek kontuan izanik, ikerketa berriak egitearren.

3.6 LPS-AK EZARRITAKO AZPIEGITUREN ZORTASUN LEGALAK

Zortasun legalak edo lurralde eta instalazioen gaien sortzen dituzten mugak, azpiegiturak eta baliabide publikoak eta etorkizuneko eraikinerako aurreikusiak daudenak, plangintza orokorrerako baldintza gainjarri garrantzitsuak osatzen dituzte. Araudi sektorial ezberdinez bermatuak daude.

Vitoria-Gasteizko udalerrinari dagokionez, Plan Orokorren objektua izanik Aireportuari, errepide sareari, trenbideari, ibai eta errekei, hezegunei eta Arakako base militarri buruz ari gara, azken hau aurreko ataletan aipatu duguna.

Forondako **AIREPORTUARI** dagokionez (Aerodromoa sektoreko araudiaren arabera), eta aurretik aipatu dugun bezala **zortasun aeronautikoak** martxoak 11kako 377/2011 Errege Dekretuaz aratuak izan dira, (EAO 77zk.2011.urteko martxoak 31) 2.artikuluaren bere pista zabaleraren arabera sailkatua agertzen da (2100 metro baino handiagoa):

“2. Artikulua. Aireportuaren sailkapena

Vitoriako aireportua «A» letrarekin aerodromo bezala sailkatzen da, aurreko artikuluan zortasunak esandakoa aplikatzeko helburuarekin eta otsailak 24ko 584/1972 Dekretuan esaten denaren arabera”.

“Zortasun aeronautikoen” Otsailak 24ko 584/1972 Dekretuaren arabera (EAO 69zk. Martxoak 21), zortasunak inguruneko beharrezko muga bezala difinitzen dira, eta beharrezkoa izatekotan segurtasun baldintza egokietan aireko operazioen jarraitasuna bermatzeko. Hurrengo kasuei dagokie:

- **Igoera eremuak aireratzean**, gertutasun gainazala, trantzisiozkoa, barne horizontala eta gainazal konikoa hurrenez hurren (6.artikulua).



- **Jardueren zortasun mugaketa**, turbulentzia, argiak erabiltzea, gainazal handiak, fauna suspertzeko eta beste batzuk sor ditzakeen guztiak murriztu ditzake (10 .artikuluak).
- **Instalazio radioelektriko airenautikoen zortasunak** (11 eta 16 bitarteko artikulua).
- **Aireontzi operazioaren zortasunak** (17 eta 25 bitarteko artikulua).

584/1972 Dekretuak, aipatutako gainazalen inguruko hiri-plangintzarekin lotzea aurreikusten du. **Estatuko Administrazioaren Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Orokorrean eskatzen den obligazio txostena eta txosten loteslea aurriztatu da** aireportuko eta inguruko hirigintza antolamendu instrumentuen tramitazioa irauten duen bitartean.

ERREPIDE SAREARI dagokionez, 20/1990 Foru Arauan, ekainak 25eko ARABAKO Batzar Nagusian (ALHAO 78zk. Uztailak 9) eta 10/1995 martxoak 20ko Foru Arauetan egindako aldaketen bidez arautua dago (ALHAO 46zk. Apirilak 19koa eta baimenaren administrazio-isltasunari dagokiona).

Aurreko arautegian jasotako zehaztapenen artean, eta dokumentuari dagokionez, Arabako Errepideen Plan Integralaren aurreikuspena nabarmentzen dugu (18.artikuluak) eta hirigintza plangintzarakin loteslea dela adierazten da.

Arautedi honetan dauden zortasun legalak, jabari publikoko zonaldei, zortasunei eta afekzio zonaldei dagokie. Eraikin mugako lerroak eta zerbitzu publiko orokorrak gainjartzen dira (37.artikuluak). Bere edukia horrela azaldu daiteke:

“38. Art. Jabari publikoko eremua

1. Jabari publikoko eremukoak dira errepideek okupatutako lurak eta haien elementu funtzionalak, eta errepideko lur-zerrenda bat. Lur-Zerrenda horrek zortzi metroko zabalera izango du autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; gainerako errepideetan, berriz, hiru metroko zabalera. Zerrenda horiek bidearen alde bietan egongo dira, eta horizontalean eta bidearen ardatzerekiko perpendikularrean daude neurtuta, laugunearen kanpoko ertzetik.

Laugubearen kanpoko ertza lur naturalaren eta harekin mugakide diren honako hauen arteko gurutzagunea da: lur-erazketaren ezponda, lubeta edo, hala denean, eusteko hormak.

Zubi, bidezubi edo antzeko egitura bereziren bat badago, honako hau izango da laugunearen kanpoko ertza edo lerroa: lurren gaineko lanen ertzarekiko proiektatutako lerro bertikala. Edonola ere, egituraren euskarriek hartzen dituen lurra beti izango da jabari publikokoa.

2.Honako hauek dira errepide baten elementu funtzionalak: errepidearen kontserbazioari edo bide-zerbitzu publikoaro etengabe lotutako eremu guztiak. Besteak beste, honako hauek jotzen dira elementu funtzionaltzat: atsedenguneak, aparkalekuak, larrialdiko laguntza medikurako guneak, pisatzeko guneak, autobusak gelditzeko guneak, espaloiak eta beste helburu laguntzaile edo osagarri batzuk dituzten guneak.



3. Bakarrik egin ahal izango dira obrak eta instalazioak errepidearen jabari publikoko zonaldean, Foru Aldundiaren aurre baimenarekin eta zerbitzu publikoaren interes orokorraren laguntza honela exijitzen duenean.

Betiere, arlo horretan beste erakunde batzuek izan ditzaketen eskumenak gorabehera.

39. Art. Zortasun-eremua

1. Errepideen bi aldeetan dauden lur-zerrenda bik osatuko dute zortasun eremua. Zerrenda horiek, barrutik, aurreko artikuluan zehaztutako jabari publikoko eremuak mugatzen ditu. Kanpotik, ordea, laugunearen kanpoko ertzekiko paralelo dauden bi lerrok mugatzen dituzte. Lerro horiek laugunearen kanpoko ertz horretatik hogeita bost metrora egongo dira autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; gainerako errepideetan, berriz zortzi metrora.

2. Zortasun-eremuan ezin izango da lanik egin, eta bide-segurtasunarekin bateragarri diren erabilerak bakarrik egin daitezke. Horretarako, edonola ere, Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera.

3. Edozein kasutan, Foru Aldundiko organo eskudunak zortasun-eremua erabiltzeko baimena eman dezake interes orokorreko arrazoiengatik edo errepidearen zerbitzua hobetzeko beharrezko denean.

4. Zortasun eremuaren okupazioa eta bere erabilera eragindako kalteak indemnizagarriak izango dira.

.../...

40. Art. Eraginpeko eremua

1. Errepideen bi aldeetan dauden lur-zerrenda bik osatuko dute eraginpeko eremua. Zerrenda horiek, barrutik, zortasun-eremuak mugatzen ditu. Kanpotik, ordea, laugunearen kanpoko ertzekiko paralelo dauden bi lerrok mugatzen ditu. Lerro horiek laugunearen kanpoko ertz horretatik egun metrora egongo dira autobide, autobia, automobil-bide eta lehentasunezko sareko errepide arruntetan; berrogeita hamar metrora oinarrizko sareko errepidetan, eta, gainerako errepidetan, berriz, hogetita hamar metrora.

2. Eraginpeko eremuan edozein lan mota eta instalazio finakoak zein behin-behinekoak egiteko, erabilera aldatzeko eta zuzaintzak landatu edo mozteko, Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena behar da, beste edozein erakundek gaian eduki ditzakeen eskumenak gorabehera.

3. Afekzio zonaldean existitzen diren eraikuntzak eta instalazioak konponketa eta hobekuntza obrak egin ahal izango dira. Behin baimena edukiz gero, behin eta bere helburua eta edukia jakinda, eraikuntza tamaina suposatzen ez duenean eta kanpartitzen dutenon balioa hazten ez denean jabetza ez kentzeko. Guztia, halaber, eskumen konkurrentearen kalterik gabe.



4. Baimenaren ukapena etorkizunean errepidea luzatzeko edo aldatzeko egitasmo edo proiektuen aurreikuspenetan oinarrituta egon behar da, baiian ez hamar urte baino gehiago.

.../...

42. Art. Eraikuntza-lerroa

1. Errepideen alde banatan eraikitzeko muga-lerroa ezarrita dago, hortik aurrera eta errepideraino ezin da edozein motako eraikuntza, berreraikuntza edo zabaltze lanak egitea; lehendik existitzen diren eraikuntzen edo instalazioen kontserbaziorako eta mantentze-lanetarako ezinbestekoak gertatzen direnak salbu.

Lerro muga 50 metrora kokatua dago autobide eta autobietan, eta 25 metrora errepide arruntetan eta errei anitzekoetan, betiere, horizontalean eta perpendikularki neurtuta hurbilen dagoen galtzadaren kanpoaldeko ertzetik. Galtzadaren kanpoaldeko ertza, ibilgailuen zirkulaziorako, oro har, erabiltzen den errepide-zatiaren kanpoko ertza da.

2. Oro har, osorik edo zati batean hirigunetik igarotzen diren errepideetan, Foru Aldundiko organo eskudunak aurreko paragrafoan ezarritako distantzia baino distantzia txikiagoan ezar dezake eraikuntza-lerroa, dagokion hirigintza plangintzarekin, eta arautegiak ezartzen duen prozeduraren arabera.

3. Horrez gainera, Foru Aldundiko organo eskudunak, ukitutako toki-erakundeek txostena eman ondoren, oro har ezarritako eraikuntza-lerroa baino distantzia txikiagoan dagoen muga-lerro bat ezar dezake zenbait errepiderentzat, arrazoi geografikoak edo sozioekonomikoak direla medio ondo zehaztutako inguru edo eskualdeetan.

4. Herri barruko zeharbideak ekiditeko eraikitzen diren eskualde-sareko edo sare lokaleko saihebidetara edo ingurabideetan, eraikuntza-lerroa galtzadaren kanpoko ertzetik hogeita bost metrora egongo da, saihebidetara osoan zehar.

TRENBIDE SAREA bere aldetik, bere Lurralde Plan Sektorial propioa dauka (otsailak 27ko, 41/2011 Dekretua, EHAA 69zk, apirilak 9), hirigintza plangintzako efizientzia loteslarekin eta inguruneko propietaten gaineko muga eta zortasun legalak osatuz. Honi dagokionez LPSaren hurrengo zehaztapenak azpimarra ditzakegu:

“21.artikulua- Trenbideen aldameneko guneen definizioa

Babes erregimena eta lurzorua erabilera eta eraiketa baldintzak zehazteko, trenbidearen hurbilekotzat joko dira, **lur berdinketaren atzeko erpinetik hasita, honako hiru gune hauek**: jabari publikoak barne hartzen duen lurralde esparrira; zortasun lurra eta eragindakoak.

22.artikulua- Trenbideen aldameneko guneen definizioa

1. Trenbideko jabari publikoaren mugakide diren guneak, handik hurbil daudenez, bi eremutan banatzen dira: zortasun gunea eta eragindakoa, eta haien jabego eskubidearen estatutu berezia finkatzen dute.



2. Ondoko bi artikuluetan zortasun gunea eta eragindakoak defintzeko aurreikusitako distantziak kasu konkretuetan aldatu ahal izango dira arloko legerian aurreiksitako balizkoetan.

23.artikuluua- Zortasun gunearen definizioa

1. Zortasun gunea trenbidearen bi aldeetan dauden lur-zerrendak dira; barrutik jabari publikoko gunek eta kanpotik lur berdinketaren kanpo aldeko erpinen paraleloak diren bi lerrok mugatzen dute: hogeit (20) metrotra lurzoru hirigarri zein ez-hirigarrian eta zortzi (8) metrora hiri lurzoruan. Neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpo bidearekiko perpendikularrean eta lur berdinketaren kanpoko erpinetatik hasita egingo da.

2. Tunelen kasuan, zortasun gunea barrutik jabari publikoko gunek eta kanpotik egituraren kanpoko erpinen paraleloak diren bi lerrok eta trenbidea zeharkatzen duen beste batek mugatzen duten lur eremua da; distantzia (20) metrokoa izango da lurzoru hirigarri eta ez-hirigarrian eta zortzikoa (8) hiri lurzoruan, horizontalean eta lehengoarekiko perpendikularrean neurtuta.

24. artikulua- Eragindako gunearen definizioa

1. Trenbideak eragin fako gunea haren bi aldeetan dauden lur-zerrendak dira; barrutik zortasun guneen kanpoko mugek eta kanpotik lur berdinketaren kanpoko erpinaren paralelo diren bi lerroek mugaturik daudenak eta berrogeita hamar (50) metrora daudenak lurzoru hirigarrian eta ez-hirigarrian eta hogeita bost (25) metrora hiri lurzoruan; neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpoko bidearekiko perpendikularrean egingo da eta lur berdinketaren kanpoko erpinetatik hasita.

2. Tunelen kasuan, ez dago eragindako gunerik.”

ARAKAKO BASE MILITARRARI dagokionez, aurretik aipatu dugun bezala, bost taldetatik lehenengo taldearen barruan dago, Nazio-defentsarako intereseko zona eta instalazioen arautegiaren 8.artikuluan agertzen da eta otsailak 10eko 689/1978 Errege Dekretuaz onartua (EAO 89zk. 1978.urteko apirilaren 14an). Aldi berean, martxoak 12ko 8/1975 Legean emanda, Nazio-Defentsaren interesa erregulatzen duena (EAO, 63zk. 1975.urteko martxoak 14). Aipatutako 689/1978 Errege Dekretuaren (9-14 artikulua eta 29-31 artikuluetan aurreikusitako xedapen komunak) erregimen juridikoaren A azpiatalean aurreikusten da (Lehenengo taldearen instalazioak).

- Aipatutako erregulazioarekin, lehenengo talde honetako instalazio militarrik (Besteak beste Araka) bere ingurunean kokatua **segurtasun zonaldearen** seinalea daukate, eta **gertutasun eta hurruntasun zonaldeak** bereiztuak dauzkate (9. artikulua). Arakaren kasuan, segurtasun zonalde hau apirilak 10ko 8/1997 Aginduz mugatua dago. RCL 1997\967 (EAO 96zk. 1997ko apirilak 22): bere eranskinetan aipatutako gertutasun eta hurruntasun koordinatuen arteko ezberdintasunak ezartzen dira.



3.7 ARABAKO MENDIEN FORU ALDUNDIA

11/2007ko martxoaren 26ko Mendien Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoarena (ALHAO 44, 2007ko apirilak 13), tradizio handiagoa duten lehiaketa eksklusiboetako baten erregulazioan agindutakoa eta Arabako Foru Lege garrantzitsuarekin, helburu bezala dauka “helburuak ezartzea eta aplikatu ahal den lege erregimena” eta aldi berean “erabilera eta aprobetxamendu guztiekin”.

Berriz ere, baso eremu publiko gehien duen materia bat aurkituko dugu, kontzejuen titulartasunari dagokio, Foru Aldundiari dagokio, “ikuskapen tekniko handia” bezala ezagutu da, ondare naturalaren izaerakoa.

Arau erregulatzailer honetan aipatutako xedeak (10 eta 11 artikulua), bereziki: baldintza ekologiko eta paisajistiko mantentze eta kontserbazioetan zentratzen dira, lurzoru eta ur kalitatearen hobekuntzan, kudeaketa antolatu batean eta besteak beste, basoaren mantentzean landa ingurunean. Beste batzuen artean, “mendiaren funtzio soziala” ondare natural, historiko eta paisajistikoaren kontserbazio eta arreta bezala definitzen da, eta oinarritzko prozesu ekologikoen eta oinarritzko sistemen mantentzea.